BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

4277

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 10ekoa, Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzarena, Fundación Arantzazu Baketik fundazioari emandako diru-laguntza baten ukapen partziala onartzen duena, ZUZ-2011BA/0010 erreferentziakoa, Garapen Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kontura.

Garapen Lankidetza Sustatzeko Fondoaren konturako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren xedapen gehigarriak honela dio: «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak herrialde pobretuen aldeko garapen-programak batera finantzatzeko hitzarmenak ezarri ahal izango ditu GLSFaren kontura, Estatuko Administrazioarekin, autonomia erkidegoekin, foru aldundiekin, udalekin, Europako eskualdeekin eta zuzenbide publiko zein pribatuko beste pertsona juridiko batzuekin. Hori hala egingo da, subjektuarengatik edo proiektuaren izaerarengatik aurreko kapituluetan araututako deialdi publikoan parte hartu ezin badute (gorabehera hori aurrez arrazoitu behar dute), betiere aurrekontuak horretarako aukera ematen badu. Batera finantzatzeko hitzarmen horiek Gobernu Kontseiluak onartuko ditu, eta orotarako beraien xedapenen arabera arautuko dira».

Proiektuaren ezaugarrietan aldaketa nabarmenak egiteko aukerari buruzko klausula berezirik ez badago, Garapen Lankidetza Sustatzeko Fondoaren arau orokorra aplikatu behar da. Horrela, aipatutako dekretuaren 28. artikuluaren 1. Idatzi-zatiak honako hau dio: erakunde eskatzaileak proiektua gauzatzerakoan sartu nahi dituen aldaketen berri emango dio, aldez aurretik; Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari, eta aldaketa horiek aurrekontuan izango duten eragina zehaztuko du. Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari dagokio proposatutako aldaketak onartzea.

Aipatutako hitzarmena 2014ko abenduaren 29an sinatu zen, 90.047,10 euroko balioan.

Fundación Arantzazu Baketik fundazioak Garapen Lankidetzaren Euskal Agentziako Zuzendaritzari komunikazio bat bidali zion 2014ko uztailaren 9an; komunikazio horretan 9.952,90 euroko uko partziala aurkeztu zuten, horretarako azaldutako helburuetan aurrera egiterik ez zeukatelako.

Garapen Lankidetzaren Euskal Agentziak diru-laguntzaren onuraduna den erakundeak eskatutako aldaketen aldeko irizpena eman du eta, horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Baimena ematea 9.952,90 euroko uko partziala egin dadin, Fundación Arantzazu Baketik fundazioarekiko lankidetza-hitzarmenean, «Afrikandugu: hermanamientos cooperativos entre África y el País Vasco» proiektua finantzatzeko.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Gizarte Gaietako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 10a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.